

AITOR ESNAOLAREN TESTIGANTZA

Atxiloketa goizeko 3:00ak aldera gertatu zen. Soinu handi batzuk entzun nituen eta konturatzerako, GAReko talde oso bat gainean nuen. Kolpe eta bultzada artean lurrera bota ninduten eta segituan esposak jarri zizkidaten. Oso oso azkar joan zen dena. Gutxira idazkari judiziala etorri zen eta miaketarekin hasi ginen. GARekoak erretiratu eta informazioko Guardia Zibilak inguratzen hasi zitzaizkidan, kalez jantzita.

Miaketa oso arraroa izan zen. Sukaldean geundela, nire logelan entzuten nituen. Logelara iristerako, dena hankaz gora, eta ganbaran sumatzen ziren hotsak. Ganbarara iritsi, eta dena miatuta. Dena den dena bideokameraz grabatzen zuten, hori ere grabatuta egongo da.

3 edo 4 alditan, informazioko Guardia Zibil batek besotik heldu eta ertz batera eraman ninduen, gainontzeko Guardia Zibil eta abarretatik aldentuta, eta suabe suabe informazioa ateratzen saiatzen zen, poliki poliki. Aldi horietako batean nire anaia ekarri zuten. Oraindik ez zutela atxilotu esan zidaten. Arratsaldeko 6:00ak arte egon ginen bertan.

Ondoren GAReko todoterreno batean Gasteizera eraman ninduten, mediku forensea ikustera, eta hor, kamuflatutako kotxe batean sartu ninduten. Madrilera zuzenean, *sin escalas*. Kotxean sartu orduko, espero nuena etorri zen: Burua lurrerrantz makurtuta, jertsea buru gainean, lehenengo oihuak, lehenengo irainak, galderak, mehatxuak... *En Madrid te van a coger los mihuras* zioten....

Madrilera iritsi, eta kotxetik, jada, mihurek atera ninduten. Euren jarrera nabarmena zen: Oso oso gainean nituen. Bromak egiten zizkidaten.....

Ziegara sartu eta arauak esplikatu zizkidaten: Ezin nuen bururik altxa eta begiak itxita eduki behar nituen eurekin nengoenean.

Eta denbora gutxira ziegatik atera eta gela batetara eraman ninduten. Han arropa kendu arazi zidaten, eta biluzik nengoela busti egin ninduten pixka bat. Ondoren pintza bat jarri zidaten barrabiletan eta beste bat hanketan Pentsa, antifaza buruan, basatiz inguratuta, biluzik eta elektrodo makina martxan jartzeko prest. Ez zuten martxan jarri hala ere, halako batean, *vamos a cambiar de táctica* esan zuten.

Vístete esan zidaten, eta plastikozko poltsa batekin soinua egiten hasi ziren: *¿Te suena?, ¿Has oído alguna vez cómo torturamos?, ¿Te lo crees?*

Burua poltsa batean sartu zidaten eta gomaespuman bildu ninduten. Poltsa estutu gabe ere, berez, nire arnasketarekin, ahora sartzen zitzaidan, aurpegira itsatsi eta ezin nuen arnasa hartu.

Eseri egin ninduten, eta lepoa bihurritzen zidaten, poltsa estutuz. Eromena. Bozgorailu baten barruan nengoela ematen zuen, hainbat guardia zibil inguruan, sekulako belarrondokoak, mehatxuak, oihuak,... nahi izan banu ere ezingo nuke konfesorik egin, ezinezkoa zen pizti haien erritmoari eustea.

Euren artean bazen bat guztiz jota zegoena, *El Negro* deitzen zioten. Dena muturrera eramaten zuen: Kolpe gogorrenak, oihu ozenenak, mehatxu larrienak, nerbioak galtzen zituen.

Ez dakit nondik ateratzen nuen indarra, baina neure burua lurrera botatzea lortzen nuen, eurak ere nirekin lurrera bultzatuta. Haserretu egiten zituen honek, erotu egiten ziren, sutan jartzen ziren. Gomaespuma gehiago eta oraingoan lurrean. Ezin nuen mugimendu txikiena ere egin. Gainean neuzkan. Eta berriro poltsa estutzen... Poltsa bat hortzekin haustea lortu nuen, baina ez nuen

errepikatu. Ordainetan eman zidatena jasan ezina zen.

Gogortzen joan zen egoera. Poltsa estutu, gehiago ezin nuenean pixka bat askatu, 3 arnas estu larri larri eta berriz estutu, askatu, 2 arnas estu, estutu, askatu, arnas estu bat... Orduak eman nituen horrela. Txikituta nengoen eta hasi besterik ez ginen egin.

Lurrean uzten ninduten botata. Pixa eta kaka gainean eginda, izerditan blai..... Gomaespuman bilduta eta hainbat guardia zibil gainean. Orduan galderak hasi ziren.

Arnasa errekuperatu nuen pixka bat eta beste saio basati bat. 2. saiorako akabatu ninduten.

Hasta ahora has pasado calor, ahora pasarás frío. Lurrean botata nengoen. Gomaespuma guztia kendu zidaten eta bainera bat betetzen ariko balira bezala entzun nuen....

Lurrean nengoen botata eta ezin nuen zutitu. Ez nuen gorputza sentitzen, ez nekien izerditan nengoenik. Ezin nuen mugimendurik koordinatu, ezin nuen hitzik egin. Ahoa irekitzen nuen ahalik eta arnas gehien hartzeko eta eurek ur txorrotata bat botatzen zidaten ahora... Dena kontrako eztairitik sartzen zitzaidan, etengabe estulka nengoen. Ondo portatzen banintzen zerbeza emango zidatela zioten. Ura eman zidaten edateko eta ezin nion botilari eutsi, eurek lagundu zidaten azkenean ur pixka bat edaten. Ateak ireki zituzten eta haize hotza sartzen zen. Izoztuta nengoen minutu batean eta ordu bat eduki ninduten hortxe. Ezin nion dardarari eutsi, geroz eta handiagoa. “¿Tiemblas de frío o de miedo?” Oraindik ere ez dakit.

Minari aurre egingo niola uste nuen, banuen konfiantza neure buruarekin. Baina ez nuen hau espero. Plastikozko poltsa ziztrin batek akabatu zaitzake.

Lurretik altxa ninduten eta arropa jartzen lagundu. Gorputz guztia miatu zidaten lehenago, bizkarra eta ipurdia batez ere. Kamiseta gantzontziloen barrutik sartzeko agindu zidaten. Ez nuen ezer ulertzen, baina denbora gutxira mediku forentsera eraman ninduten. Orduan ulertu nuen.

Blai eginda nengoen eta dutxan sartu ninduten. Lehortu eta etxetik hartu zidaten arropa jantzi zidaten. Euren eskuetan nengoen. Mediku forentseari ez begiratu eta ez hitz egiteko esan zidaten.

Medikuak berak eskatu zidan burua altxatzeko, eta hainbat alditan eskatu eta gero, mahaira arte behintzat altxa nuen begirada. Ezin nuen hitzik egin.

Ziegara bueltatu nintzen gero, eta denbora gutxira, beste poltsa sesio batera. Amaiezina zen. Geroz eta guardia zibil gehiago sumatzen nituen inguruan. Saioa bukatuta, deklarazio poliziala prestatzen hasi ziren. Hau da, zer esan behar nuen ikasazten hasi zitzaizkidan.

Deklarazio poliziala egiteko antifaza kendu zidaten. Hauek izan ziren ikusi nituen lehen aurpegiak. *nosotros somos funcionarios* zioten, ordenagailu batean zeuden bi guardia zibilek. Batek galderak egiten zituen eta besteak ordenagailuan idatzi. Nabarmena zen aurretik prestatuta zegoela. Egiten zituzten galderak, nik emandako erantzunak... Idazten zuenak ere, itxurak egiten zituen. Idatzita zegoen aurretik, eta moldatzen joaten zen nik esaten nuenaren arabera.

Handik kotxe batera sartu ninduten eta Euskal Herrirako bidea hartu genuen. Eta nire sorpresarako, *El Negro* gidari! Ahotsagatik konturatu nintzen, ez dut ahots hori sekula ahaztuko. Bera, berean: Baserrira erre egin beharko zutela, familia akabatuko zuela... Egia kontatzeko, alegia.

Antifaza kendu zidaten, begiak irekitzen ez banituen, eta lurrera begira jarraitzen banuen, beti ere. Suabe suabe hasi zitzaidan orduan *El Negro*. Hitz egiteko aukera bakarra bera zen, besteekin

ezinezkoa zen. Azkenean, berari hitz egiten besterik ez nintzen ausartzen. Irabazi egin zidan. Basatiena bera zela jakinda ere, bere lagun egin nahi nuen. Gainera, bera zen guardia zibil guztien nagusia.

Egun hori oso osorik pasa nuen Euskal Herrian, idazkaria eta *El negro* ondoan nituela, eta ez nuen arazorik eduki.

Madrila bueltatu eta dena aldatuko zuela pentsatu nuen. Ziegan sartu, eta lehengo aldiz ziegako argia itzali zuten, lo egin nezan. Etzan eta dena bukatu zela uste nuen. Inozoa ni, minutu erdira berriro zetozen ate joka. Ponte de pie. *No te puedes ni sentar, ni apoyar en la pared. Cómete esto. Y cómetelo de pie.* Txorizo bokata bat eman zidaten. Ezer ez jatea eta edatea erabakita neukan, egin zezatela nahi zutena nirekin, jan eta edan gabe ospitalera eraman beharko nindutela pentsatu nuen. Horri ere ezin izan nion eutsi. Ordu bete pasa nuen jaten, ezin. Bokata bukatu nuenean, berriro galdeketa gelara. Ez nuen espero. Eta sesio gogorrenak orduan jasan nituen.

Poltsa nazkagarri hori berriro. Beti zuten haserre egoteko arrazoiak bat. Oraingoan *Negrorekin* hitz egin nuela, berari eman niola informazioa eta beraiei ezetz. Nik ez nekien zeintzuk ziren beraiek. Ez nekien *Negro* han ote zegoen... Hitz egiteko astirik ere ez zegoen. Infernua zen hura. *Te vamos a matar, no nos va a pasar nada, un par de homenajes, alguna movilización y punto, no eres nadie.*

Horrela epailearen aurrera pasa nintzen arte, bosgarren egunean. Epailearen aurretik pasa aurreko gauean oraindik poltsa sesioak ezagutu nituen. Atxilotuta ez zegoen jendearen ahotsak entzuten nituen, nire iloben ahotsak e.a. Beldurra, nekea. Lur jota nengoen. Ez nuen deskantsurik izan.

Bigarren deklarazio polizial bat egin behar izan nuen, dagoeneko ez nintzen pertsona. Burua estutu behar izan nuen zerbait deklaratu ahal izateko, esateko ezer ez nuen, baina euren eskutan ezin nuen isilik gelditu.